ESKORIATZAKO NERABEENTZAKO ZERBITZUA (GAZTELEKUA) EMATEKO KONTRATAZIORAKO BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA

I.- KONTRATUAREN HELBURUA ETA ALDERDI OROKORRAK

1. BALDINTZA.- KONTRATUAREN HELBURUA ETA BEHARRA.

1.1.- Kontratu honen helburua da Eskoriatzako nerabeentzako zerbitzua ematea espedientean jasotako baldintza teknikoen agirian adierazitako ezaugarriekin. Baldintza teknikoen agiri horrek kontratu izaera izango du.

Helburu hori Europako Batzordeko Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturaren 92000000-1 kodeari dagokio.

1.2.- Loteak: EZ. Kasu honetan ezin da banaketarik egin, kontratua exekutatzeko zailtasuna izango zelako eta eraginkortasunik gabekoa. Kontratuaren helburu diren prestazioak bakoitza bere aldetik egiteak, hau da, horiek egiteko beharrezko koordinazioak, zaildu egiten du, ikuspuntu teknikotik, horiek egitea.

1.3.- Kontratuaren beharra:

Nerabezaroa bizitzako etapa gorabeheratsua dugu. Haur izatetik heldutasunerako igarobidea da non emozioak, bizipenak eta izaera finkatzen diren. Helduak imitatzen hasten dira nerabeak baina oraindik ume izaten jarraitzen duten testuinguruan. Familia erreferente izatetik, lagun taldeek garrantzi handia izatera pasatzen dira. Haur parkeak erabiltzetik eta jolastetik euren tokia inon bilatzen ez duten espaziotara… Haur eta helduen topagunetatik kanpo egoten dira, euren espazio propioak bilatu nahian.

Gorputz aldaketak, lotsak, jokaera arriskutsuak eta kontsumo arriskutsuak ematen hasten diren garaia da.

Testuinguru honetan kokatzen da nerabeen zerbitzua. Izaera hezitzailea duen zerbitzua da, non bizitzako etapa honetako gozamena sustatzeaz gain, autonomia pertsonala garatzen laguntzen dien, gaitasun pertsonalak eta gizarte-harremanak landuz. Beren beharrei irtenbidea ematen ahalegintzen da zerbitzua, heldutasunean herritar, sano, aktibo eta parte-hartzaile izateko.

Hori guztiori, nerabeek libre duten denboran lantzen da, aisiako ekintzen eta hurbileko harremanen bitartez.

1.4.- Ondorio guztietarako, baldintza administratibo partikularren agiri honek, baldintza teknikoen agiriak eta horien eranskinek, kontratuko dokumentu izaera izango dute, eta hori horrela izanik, aldeen eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte eta, ados dagoela adierazteko, enpresa esleipendunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko ekintzan.

2. BALDINTZA.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA KONTRATU IZAERA DUTEN DOKUMENTUAK.

Egin beharreko kontratua zerbitzu kontratu bezala kalifikatzen da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kontratazio honek administrazio izaera du, eta baldintza orri honetan bereziki aurreikusi

gabekoetarako ondorengo arauek arautuko dute:

- Kontratazio publikoari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EE Zuzentaraua, 2004/18/EEa indargabetzen duena.

- Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (UE) 2016/7 betearazpen erregelamendua, kontrataziorako agiri europar bakarraren formulario normalizatua ezartzen duena.

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea -2017 SPKL-.

- Herri Administrazioetako Kontratazio Erregelamendua onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretua.
Osagarri moduan, zuzenbide administratiboko gainerako arauek aginduko dute, eta horrelakorik ez bada, zuzenbide pribatukoek.

3. BALDINTZA.- KONTRATAZIO ORGANOA.

2017ko SPKLren bigarren xedapen gehigarriaren arabera, kontratu honetarako kontratu organoa Alkatetza da.

4. BALDINTZA.- ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA.

2017ko SPKLren 156. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, hainbat esleipen irizpideri jarraiki, baldintza orri honetako 15. baldintzan ezarritakoaren arabera.

5. BALDINTZA.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Gardentasuna eta kontratuko jarduerari buruzko informazioa publikoa izango dela bermatzeko, eta bestelako publizitate bideak erabiltzearen kaltetan gabe, Udal honek kontratatzailearen profila du, eta bertara sartzeko ondorengo orrian araututakoari jarraiki egin beharko da: www.contratación.euskadi.eus

6.- BALDINTZA.-EGIKARITZE EPEA.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek bi urteko iraupena izango du 2022ko urriaren 1etik kontatzen hasita, eta beste bi urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du lau urte baino gehiago iraun.

Luzapena berariaz erabaki beharko du kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero, eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, kontratua amaitzerakoan zerbitzua ematen jarraituko dela bermatuko duen kontratu berria oraindik formalizatu gabe egongo balitz esleipen prozedura berrian izandako gertaera aurreikusi ezinezkoengatik kontratazio organoarentzat, eta zerbitzua ez eteteko interes publikoko arrazoiak izan, kontratu hau kontratu berria exekutatzen hasi arte luzatu ahal izango da, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, eta betiere, kontratu berriaren lehiaketarako iragarkia gutxienez

kontratu honen amaiera data baino hiru hilabete lehenago argitaratu baldin bada.

7.BALDINTZA.-KONTRATUARI KALKULATUTAKO BALIOA ETA LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

7.1. 2017ko SPKLren 101.1 artikuluan ezarritako ondorioetarako egin nahi den kontratuari kalkulatutako balioa, luzapena barne, 249.200 (BEZ gabe)

Lizitazioko gehienezko aurrekontua 62.300 euro urteko da, gehi BEZari dagozkion 6.230 euro, hau da, guztira, 68.530 euro urteko.

7.2. Lizitazio oinarrizko aurrekontuak, zein lizitatzaileek hobetu ahalko duten bere eskaintzetan, gastu guztiak barne hartuta, 62.300€koa izango da urtero gehi BEZare %10a, guztira, 68.530€koa.
Prezioak horrela banatzen dira:

Langileria gastuak: 51.134€
Materiala eta ekintzak: 4.540€
Zeharkako gastuak: 6.626€

8. BALDINTZA.- KREDITUA IZATEA.

Kontratua udal aurrekontuko 1.0600.227.337.260.20.2022 aurrekontu aplikazioaren kargura ordainduko da. Aplikazio horretan behar beste kreditu dago, atxikita gelditzen dena.

Halaber, aurrekontu gaietako organo eskudunak konpromisoa hartzen du hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jartzeko.

9.-BALDINTZA.- PREZIOAK BERRAZTERTZEKO ERREGIMENA.

Martxoaren 30eko 2/2015 Legea –Espainiako ekonomiaren desindexazioarena– garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta sektore publikoko kontratuen prezioa berraztertzeko baldintzak arautzen dituen SPKLren 103. artikuluan ezarritakoari jarraiki, kontratu honetan ez da aplikagarria aipatutako berrazterketarik.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA.

10. BALDINTZA.- ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA.

2017ko SPKLren 156. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, kontratua prozedura ireki bidez esleituko da, arautze harmonizaturik gabe, hainbat esleipen irizpideri jarraiki, baldintza orri honetako 16. baldintzan ezarritakoaren arabera.

11. BALDINTZA.-LIZITAZIO ELEKTRONIKOA.

Lizitazio hau bitartekari elektronikoz izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoaren arabera. Beraz, Udalak lizitatzaileekin izango duen harremana bitarteko horien bidez ere egingo da.

12. BALDINTZA.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK.

Espediente honi buruzko jakinarazpen eta komunikazio guztiak elektronikoki egingo dira, eta horretarako ondorengo prozesua jarraituko da:

1.- Hartzailearen esku jartzea.
2.- Jakinarazpenaren edo komunikazioaren edukira sarbidea izatea.

Epeak jakinarazpena egiten denetik hasiko dira kontatzen (jakinarazpenaren objektu den ekintza egun berean argitaratzen baldin bada kontratatzailearen profilean) edo jakinarazpena jasotzen denetik (ekintza ez bada egun berean argitaratzen kontratatzailearen profilean).
Hamar egun natural igarota jakinarazpena eskuragarri jartzen denetik, eta hartzaileak ez badu onartzen edo ukatzen, epea amaitutzat joko da eta jakinarazpen izapidetza formalki betetzat.

13.BALDINTZA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Kontratu honen esleipenean parte hartu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko zein juridikoek, espainiarrak edo atzerritarrak, indibidualki edo aldi baterako enpresari-batasuna eratuta, baldin eta kontratatzeko debekuren bat ez badute eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badituzte (edo, hala badagokio, behar bezala sailkatuta baldin badaude).

Aurreko paragrafoan esandakoaren kaltetan gabe, berariaz ezartzen zaie kontratatzeko debekua ondorengo egoeraren batean dauden pertsonei edota erakundeei:

Zigor irmoa jaso izana arau-hauste larria egiteagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera, arlo profesionalean, lehia faltsutzearenean, lan-merkatuan integratzearenean, aukera berdintasuna eta desgaitasuna duten pertsonak ez baztertzekoarenean eta atzerritarrenean.

Zigor irmoa jaso izana arau-hauste oso larriarengatik ingurumen arloan, lege eta arau hauen arabera: Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako dekretua; ontzi eta ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legea; hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea; Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua; Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.

Zigor irmoa jaso izana arau-hauste oso larria egiteagatik lan edo gizarte arloan, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bategina onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baita testu horretako 22.2 artikuluan aurreikusitako arau-hauste larriarengatik ere.

Bereziki, ezingo dute kontratua egin ezta lizitazioan parte hartu ere lan harreman indibidual edota kolektiboen arloan arau-hauste oso larria egiteagatik zigor irmoa jasotako pertsona fisiko edo juridikoek, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu bateginaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, zehazki, sexu-jazarpena gertatutakoan 8. artikuluko 13. idatz-zatia ez betetzeagatik enpresaren zuzendaritzaren ahalmenak iristen diren arloan.

Gainera, enpresa esleipendunak beraien helburuak edo jarduerak kontratuaren helburuarekin harreman zuzena duten pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dira, eta kontratua behar

bezala betetzeko behar besteko baliabide pertsonal eta materialak izan beharko dituzte.

Enpresariek, gainera, kontratu honen gaia den prestazioa edo jarduera burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute.

Europako Batasunetik kanpoko enpresek 2017ko SPKLren 68. artikuluan ezarritako baldintzak ere bete beharko dituzte.

14. BALDINTZA.- SAILKAPENA ETA KAUDIMENA.

Zerbitzu kontratua denez, SPKLren 77. artikuluaren arabera, kontratu hau egiteko ez da sailkapenik eskatzen.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta profesionala edo teknikoa: Dokumentuen bidezko egiaztapena:

A.- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa: -Urteko negozio-zifra. Horretarako, aurkeztutako azken hiru urteotako negozio zifra handiena hartuko da kontuan, 68.530 BEZ barne eurokoa izan beharko delarik gutxienez, hau da, kalkulatutako aurrekontuaren gehienezko gastuaren urtebeteko gastuari dagokiona.

B.- Kaudimen teknikoa eta profesionala: Ondorengo dokumentuak aurkeztuta egiaztatu beharko da:

B.1.- Azken hiru urteetan emandako zerbitzu nagusien zerrenda. Egiaztagiri horietan adieraziko dira eman diren zerbitzuen zenbatekoak, egunak eta norentzat egin diren (kontratatzailea pribatua edo publikoa izan den); eta zerbitzu horietako garrantzitsuenak ondo burutu izanaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko da.
Azken 3 urte horietako urte batean guztira 68.530 eurorengatik urteko antzerako zerbitzuak emateko kontratua bete dutela egiaztatzen duten enpresa lizitatzaileen proposamenak onartuko dira bakarrik.

B.2.- Kontratua exekutatzeko zuzenean atxikitako langileen ikasketa tituluak eta titulu profesionalak. Zerbitzua emango duten pertsonek baldintza agiri honetako 28. baldintzan eskatutako titulu akademiko eta profesionalak eta hizkuntza gaitasuna dituztela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Hizkuntza gaitasunari dagokionez, egiaztagirik ezean, administrazioak xede horretarako egingo dituen probetan parte hartzeko konpromisoa onartzen da.

Hainbat enpresak aldi baterako enpresa-batasuna eratuta jotzen badute lizitaziora, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Era berean, esleipena lortuz gero AEB formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Bestalde, aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko du proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezko kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahal izango da, horiekin dituen loturen izaera juridikoa gorabehera; betiere, egiaztatzen baldin badu kontratua egikaritzeko denboran kaudimen eta baliabide horiek benetan izango dituela, eta horiek utzitako erakundeak ez baldin badu kontratatzeko inolako debekurik.

Baldintza beretan, 2017ko SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako batuketetan

parte hartzen duten enpresariek aldi baterako batuketatik kanpoko kaudimen eta baliabidetara jo ahal izango dute.

15.- BALDINTZA. ESLEIPEN IRIZPIDEAK.

Kontratua esleitzeko oinarri izango diren eskaintzen balorazio irizpideak eta horiek emandako haztapena honako hauek izango dira:

Esleipena prozedura ireki bidez egingo zaio, hainbat irizpideren arabera eta tramite arruntaz, proposamen onuragarrienari, haren balio ekonomikoa bakarrik begiratu gabe.

Kontratu hau esleitzeko, kontratazio organoak, ondoren, garrantzitsuenetik garrantzi gutxienekora, zerrendatuko diren gorabehera denak baloratu beharko ditu; ondoren ere esango diren baremoen arabera haztatuko direnak:

1.-AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 58 PUNTURA ARTE
(C gutun-azalean sartu beharrekoak)

1.1.- Eskaintza ekonomikoa: kontratua osorik egikaritzeko eskainitako prezioa: gehienez, 45 puntu.

Eskaintza ekonomikoa urteko prezioaren eskaintza izan beharko da. Gehieneko prezioa **62.300 BEZ gabe**

Prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari 45 puntu emango zaizkio eta gainerako proposamenen puntuazioa honela kalkulatuko da: eskaintza onena zati lizitatzailearen eskaintza bider 45

LP = EO/LEx45
Honako hauek izanik:

LP: lizitatzailearen puntuazioa.
EO: eskaintza onena.
LE: lizitatzailearen eskaintza

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 10etik beherako eskaintza ekonomikoak eskaintza anormalki baxutzat hartuko dira. Eskaintza bat anormalki baxua dela jotzeko, SPKLren 149.4 artikuluko irizpideez gain, kontuan hartuko da lizitatzaileak aurkeztutako eskaintza teknikoarekiko koherentzia.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 149. artikuluari jarraiki, eskaintzak neurriz gainekoak edo anormalak direla esateko Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorreko 85. artikuluan eta ondorengoetan xedatutako parametro objektiboek zehaztuko dizkigute.

Horrelakorik aurkeztu dituzten lizitatzaileei bost egun balioduneko epea emango zaie eskaintza hori adierazitako baldintzetan egikaritzen utziko dieten inguruabarren justifikazioa behar bezala

aurkeztu ahal izateko. Justifikazioak jaso ostean, lizitatzaileak bere eskaintza mantendu ahal izateko argudiatu dituen arrazoiak xehetasunez aztertuko dituen udal txosten teknikoa eskatuko du Mahaiak.

Edozelan ere, oso baxuak izateagatik anormalak direla egiaztatzen diren eskaintzak baztertuko dira azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ez dutelako betetzen estatuan edo nazioartean aplikagarri diren ingurumen arloko, gizarte arloko eta lan arloko betebeharrak, arloetan indarrean dauden hitzarmen kolektiboak ez betetzea barne.

Horiek horrela, eskaintza onartzeko edo baztertzeko arrazoitutako proposamena egingo dio Mahaiak kontratazio organoari.

1.2.- Hobekuntzak zerbitzuan: 13 puntura arte

1.2.1- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun plan bat izatea enpresak
- Baldin badu: 1 puntu
-Ez badu: 0 puntu

1.2.2.- Euskara plan bat izatea enpresak
- Baldin badu: 1 puntu
-Ez badu: 0 puntu

1.2.3.- Nerabezaroaren inguruko formazio plan bat izatea enpresak
- Baldin badu: 1 puntu
-Ez badu: 0 puntu

1.2.4-. Nerabezaroaren eta heziketaren inguruko argitalpenik/libururik izatea enpresak
- Bakarra badu: 1 puntu
- Bat baino gehiago: 2 puntu
-Ez badu: 0 puntu

1.2.5.- Nerabezaroaren inguruko artikuluak idatzita izatea enpresako kideek
- Bakarra badu: 1 puntu
- Bat baino gehiago: 2 puntu
- Ez badu: 0 puntu

1.2.6.- Nerabe etorkinak zerbitzura erakartzeko plana izatea.
- Bai 1 puntu
- Ez 0 puntu

1.2.7.- Nerabeen artean inklusioa sustatzeko jai bat antolatzea.
- Bai 1 puntu
-Ez 0 puntu

1.2.8.- Urtero 300€ gastatzea mahai jolasetan
- Bai, 1 puntu
-Ez 0 puntu

1.2.9.- Enpresak zerbitzuan dagoen baliabide materialak baino gehiago izatea.
- Bai 1 puntu
-Ez 0 puntu.

1.2.10.- Nerabeen beste zerbitzu batzuekin elkarlanerako aukera izatea enpresak
-Bai 1 puntu

-Ez 0 puntu

2.10. Nerabeen artean euskal kultura sustatzeko baliabideak dituen enpresak.
-Bai 1 puntu
-Ez 0 puntu

2.- BALIO- JUDIZIOAREN ARABERAKO IRIZPIDEAK. 39 PUNTU

2.1. Eman beharreko zerbitzua kudeatzeko eta ustiatzeko irizpideak : 39 puntu.

Atal honetan honako alderdiak izango dira kontuan:

a) Oinarri teorikoak eta proiektuaren helburua (gehienez ere 8 puntu).

- Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren barruan egotea proiektua (2 puntu).
- Marko teorikoa, helburu zehatzak eta proposatzen diren ekimenak era egokian erlazionatzea (3 puntu).
- Zerbitzuko hartzaileen adin tarte ezberdinei begira planteamendu zehatzak egitea (3 puntu).

b) Lan metodologia (gehienez ere 20 puntu).

- Zuzeneko arretan ondoko jarduerak nola garatzen diren azaltzea(aisia hezitzailea, sorkuntza, informazioa, orientazioa eta bide laguntza) 10 puntu
- Zeharkako gaien garapena (euskara, berdintasuna eta kulturartekotasuna) 5 puntu
- Gaztelekura hurbiltzen ez diren nerabeekin lan egiteko proposamena 5 puntu

c) Proposamena udalerriaren errealitatera egokitzea (gehienez ere 11 puntu).

- Herriko baliabideen, elkarteen eta abarren ezagutza eta horiekiko elkarlanerako eta koordinaziorako proposamena (gehienez ere 4 puntu).
- Herri mailako ekimenetan esku hartzeko proposamen zehatzak (gehienez ere 4 puntu).
- Zerbitzua hobetzeko proposamenak (gehienez ere 3 puntu).

Aurrez zehaztutakoaz gain, zerbitzuko lana hobetzeko eta osatzeko esleipendunak proposatzen dituen bestelako baliabideak, koordinazioa, lanak eta abar.

16. BALDINTZA.- KONTRATAZIO MAHAIA.

Kontratazio mahaia honako hauek osatuko dute:
Mahaiburua: Alkate-Udalburua edo berak eskuordetutako zinegotzia.
Mahaikideak: Udal kultur teknikaria.
Udal euskara teknikaria.
Udal idazkari-kontuhartzailea.
Idazkaria: Udal idazkari-kontuhartzailea.

17.BALDINTZA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA BALDINTZA AGIRIAK NOLA ESKURATU.

Lizitazio hau Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman dagoen Udal honen kontratatzailearen profilean iragarriko da.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako Plataformaren bidez, iragarkia agertzen den biharamunetik hasita 15 egunetako epean.

Udal honen kontratatzailearen profilera ondorengo helbidetik sartu ahal izango da: www.eskoriatza.eus. Leku horretan eskuratu ahal izango dira ere baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria.

Baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruz lizitatzaileek eskatutako informazio gehigarria proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egun baino lehenago emango zaie, betiere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 12 egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 136.2 eta 136.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan ematerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldez aurretik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek eskaintzak egiteko beharrezkoa duten informazio guztia jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Lizatazio honetan ez dira onartuko aipatutako bitarteko elektronikoetatik kanpo aurkeztutako eskaintzak. Eskaintzak elektronikoki egiteko beharrezko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikorako Plataformako edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformako erabiltzaile erregistratua izatea.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada ondo ikusi, lizitatzaileari jakinaraziko zaio, eta une horretatik gehienez ere 24 orduko epea izango du akatsa zuen fitxategiko dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Berriz aurkeztutako dokumentu horrek ezingo du inolako aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako originalarekiko. Kontratazio Organoak ikusten badu dokumentuak aldaketarik izan duela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak administrazio baldintza partikularren agiri honetan jasotakoari egokitu beharko dira, eta horiek aurkezteak esan nahi du lizitatzaileak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza guztiak, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe, eta baimena ematen diela Kontratazio Mahai eta Organoari EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan jasotako datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kaltetan gabe. Era berean, ezingo du beste batzuekin alde baterako batuta inolako proposamenik egin berak banakako proposamenen bat aurkeztu badu edo aldi baterako batuketa bat baino gehiagoko partaide baldin bada. Arau horiek hausteak berak sinatutako proposamen guztiak ez onartzea ekarriko du.

Informazio publikoa eskuratzeko indarrean dagoen legedian ezarritakoaren eta esleipenaren publizitateari eta izangai eta lizitatzaile guztiei eman beharreko informazioari buruzko SPKLren xedapenen kaltetan gabe, lizitatzaileek eskaintzak egiterakoan konfidentzialtzat jo dezakete beraiek emandako informazioaren zati bat, bereziki, sekretu tekniko edo komertzialari eta horien alderdi konfidentzialei dagokiena. Udalak ezingo du informazio hori zabaldu dagokion

lizitatzailearen baimenik gabe.

Zalantzaren bat izanez gero, hona jo daiteke:
GAZTERIA ZERBITZUA
Fernando Eskoriatza plaza z/g – 20540 ESKORIATZA
Tel. 943 714407 / Faxa: 943 714042
E-posta: gazteria@eskoriatza.eus
Kontratistaren Profila: www.eskoriatza.eus

18. BALDINTZA.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA.

Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta eta horietako bakoitzerako baldintza honetan zehaztuko den edukiarekin.

"A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Ondorengo dokumentuak izan beharko ditu:

- Gaitutako helbide elektroniko bat.

Gaitutako helbide elektroniko bat izendatu beharko da, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio espediente honetan sortutako jakinarazpenak egiteko.

- Lizitatzailearen erantzukizunpeko deklarazioa.

Deklarazio horretan lizitatzaileak adierazi beharko du Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta baita kontratua eskuratzeko baldintza agiri honetan jasotako baldintzak ere, bereziki, bertako 13. eta 14. baldintzetakoak. Deklarazioa Agiri Europar Bakarraren formularioaren arabera egin beharko da.
Edozein kasutan ere, prozedura ondo bideratuko dela bermatzeko, esleipen-proposamena egin baino lehen, kontratazio organoak edo mahaiak edozein unetan eska dezake lizitatzaileek kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatuko lukeen dokumentazioa.

Aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) aurkezten diren operadore ekonomikoen kasuan, elkartekide bakoitzak bere erantzukizunpeko deklarazioa egin beharko du. Era berean, kontratuaren esleipendun izanez gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera, bakoitzaren izena eta zer egoera eta zer partaidetza izango duen aldi baterako enpresa-elkartean.

Baldin eta, SPKLren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean egiaztatuko da ea betetzen diren legeak eta baldintza agiri honetan eskatutako izaeraren, gaitasunaren eta kaudimenaren betekizunak.

"B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- BALIO-JUDIZIOAREN ARABERAKO BALORAZIO IRIZPIDEAK.

Gutun-azalak balio-judizioaren menpeko balorazio irizpideei buruz baldintza-agiri honetako

15.2. baldintzan aipatutako dokumentuak jasoko ditu.

“C” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- AUTOMATIKOKI BALORATUKO DIREN IRIZPIDEAK.

Ondorengo dokumentuak izan beharko ditu:

a) I. eranskinaren arabera egindako proposamen ekonomikoa. Eskaintza horretan prestazio ekonomikoaren kostua xehatu beharko da eranskinean adierazitako moduan.
b) Baldintza agiri honetako 15. baldintzan aipatutako gainerako balorazio automatikorako irizpideei buruzko dokumentuak.

19.BALDINTZA.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKITZEA, TRATATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA.

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, ondorengo jarduerak egingo dira:

1.- “A” GUTUN-AZALA IREKITZEA.

Mahaiak “A” gutun-azal elektronikoa ireki eta bertan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du.

SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, aurkeztutako dokumentuetan zuzentzeko moduko akatsak ikusiko balitu Mahaiak, horiek egindako lizitatzaileei jakinaraziko dizkie, eta hiru egun naturaleko epea eman horiek zuzentzeko.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazitako zuzenketak Udalaren kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2º. “B” GUTUN-AZALA IREKITZEA.

“B” gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizioaren menpeko irizpideak dituena, kontratatzailearen profilean iragarritako lekuan, egunean eta orduan irekiko da. Iragarpena, gutxienez, ekitaldia baino 48 ordu lehenago argitaratu beharko da. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezkoa balitz, Mahaiak gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuko 27. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3.- “C” GUTUN-AZALA IREKITZEA
“B” gutun-azaletako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, “C” gutun-azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldia egingo du Kontratazio Mahaiak Udalaren kontratatzailearen profilean ezarritako lekuan, egunean eta orduan. Dokumentazio horretan egon daitezkeen akatsak edo hutsak zuzentzea beharrezkoa balitz, Mahaiak, aipatutako 817/2009 Errege Dekretuaren 27. artikulua analogiaz aplikatuz, gehienez ere sei egun balioduneko epea emango du horiek zuzentzeko.

Ekitaldi horretan jakinaraziko da eskaintza bakoitzean balio-judizioaren menpeko irizpideei emandako balorazioa.

4.- ESKAINTZAK SAILKATZEA.

Irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposizioak onenetik txarrenera sailkatuko ditu Kontratazio Mahaiak eta, dagozkion jarduerak egin ondoren, kontratua esleitzeko proposamena egingo dio kontratazio organoari.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzailearen alde, eta kontratua formalizatu arte ez du inolako eskubiderik izango Administrazioaren aurrean.

SPKLren 149. artikuluan aurreikusten denez, eskaintza nabarmenki baxuegia duen proposamenen bat edo gehiago antzemandakoan entzunaldia eskainiko zaio lizitatzaileari eskaintza nabarmenki baxuegitzat jo aurretik (edo lizitatzaileei, hala dagokienean), eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa jasoko da. Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio organoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzaileari egingo dio esleipena, betiere, lizitazioko helburua Administrazioak nahi bezala egiteko gaitasuna duela jotzen bada.

Aitzitik, kontratazio organoak uste badu eskaintza ezingo dela burutu prezio nabarmenki baxuegiak sartu direlako, sailkapenetik baztertuko du eta sailkapen hurrenkeraren arabera proposamen ekonomiko onena egin duenaren aldeko esleipena erabakiko du.

Egindako guztia espedientean jasoko da, derrigorrez egin beharreko dagozkion aktetan.

5.- LEHENENGO SAILKATUARI ERREKERIMENDUA.

Aurrez adierazitako jarduerak egin ondoren, kontratazio zerbitzuek errekerimendua egingo diote sailkapenean lehenengo gelditu denari, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean honako jarduerak egin edo honako dokumentuak aurkeztu ditzan:

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren nortasun agiri nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean arituz gero, notario-ahalordea, Udalak askietsiko duena.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze- edo aldaketa-eskritura, behar bezala inskribaturik Merkataritza Erregistroan -inskripzio hori derrigorrezkoa balitz aplikatu beharreko merkataritzako legeriaren arabera-, eta identifikazio fiskaleko zenbakia aurkeztuko ditu. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko da jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.
Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, dagokion erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie edo erantzukizunpeko deklarazioa edo ziurtagiria bat aurkeztu aplikatzekoak diren Europako Erkidegoko xedapenen arabera.
Atzerriko gainontzeko enpresariek jarduteko gaitasuna egiaztatu beharko dute, delako estatu horretan Espainiak daukan ordezkaritza diplomatiko iraunkorrak edo enpresak helbidea duen kontsuletxeko bulegoak egindako txostenaren bidez.

c) Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan, kontratuaren helburuari dagokion epigrafean alta

emanda dagoela egiaztatzen duen egiaztagiria. Egiaztagiria aurtengo ekitaldikoa bada, alta aurkeztu beharko da; eta gainontzeko kasuetan, Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren azken ordainagiria. Bi kasuetan zerga horri dagokion matrikulan baja eman ez duela egiaztatzeko erantzukizunpeko deklarazioa aurkeztu beharko du.

d) Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren egiaztagiriak
e) Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztea.

e) Hainbat enpresarik lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak, bere jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko du aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Bestalde, aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko du proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

f) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute, kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egitea.

g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko agiriak aurkeztea edo baimena ematea Kontratazio Organoari berak zuzenean lortzeko egiaztapen horiek.

h) Behin betiko bermea jarri izanaren ziurtagiria.
Aurreko a), b) eta d) letretan adierazitako baldintzak EAEko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroko ziurtagiria, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria, edo, Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri bat, aurkeztuta ziurtatu ahal izango dira, SPKLaren 96. eta 97. artikuluek xedatutakoaren arabera. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki emandakoak izan daitezke.
Jarritako epean ez badu zuzen betetzen errekerimendua, lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta kasu horretan, eskaintzen sailkapena kontuan izanik, hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio dokumentazio hori aurkezteko.

Errekerimendu hori eginda aurkeztutako dokumentuetan zuzentzeko moduko akatsak antzemanez gero, hiru egun naturaleko epea emango zaio lizitatzaileari horiek zuzentzeko. Horren berri zuzenean jakinaraziko zaio lizitatzaileari eta Udalaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

20.BALDINTZA.- BEHIN BETIKO BERMEA.

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du kontratazio organoaren eskura. Berme hori lizitatzaileak, balio erantsiaren zerga kenduta, eskainitako azken prezioaren % 5a izango da. Bermea jarri dela egiaztatzeko 10 egun balioduneko epea izango da komunikazioa bidaltzen denetik kontatzen hasita.

Dena den, behin betiko bermea 2017ko SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzuteko izango da. Kontzeptu horien barruan dago kontratuaren helburu den zerbitzua oker betetzeagatik hirugarrenei sortutako kalte eta galerengatik kalte-ordaina ordaintzeko kontratistak duen betebeharra, 2017ko SPKLren 196. artikuluan jasoa, ez betetzea.
Behin betiko bermea 2017ko SPKLren 108.1 artikuluan ezarritako moduetako batean jarri beharko da.
Kontratistari eska dakizkion zigorrak edo kalte-ordainak behin betiko bermetik kendutakoan, kontratistak bermea berriz jarri edo handitu egin beharko du dagokion zenbatekoan.

Horretarako 15 eguneko epea izango du bermetik dagokiona kentzen den egunetik kontatzen hasita, eta bermea berriz ez jartzea edo handitzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke.

Kontratuan egindako aldaketaren batengatik kontratuaren prezioa aldatuko balitz, bermea 15 eguneko epean doituko da, aldaketaren erabakia enpresariari jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita, aldaketaren ondorioz bermeak kontratuaren prezioarekin proportzioa gorde dezan. Doiketarik ez egitea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke. Ondorio horietarako ez dira prezio aldaketatzat joko kontratuaren prezioen berrikuspena onartzetik eratorritakoak.

21. BALDINTZA.- ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA.

Kontratua eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileari esleitzea erabakiko du Kontratazio Organoak. Esleipena bost egun balioduneko epean egingo da lehen sailkatuari errekeritutako dokumentazioa Kontratazio Organoak jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, SPKLren 150.3 artikuluak agindutakoa betez.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie eta Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuak administrazio-agiri gisa formalizatuz hartuko du indar juridikoa. Agiri hori zehaztasunez egokituko da lizitazioko baldintzei eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora jo ahal izateko. Hala ere, kontratistak kontratua eskritura publiko bihurtzea eskatu ahal izango du, eta kasu horretan berak ordaindu beharko ditu gastuak.

Esleipen jakinarazpenean adierazitako epean, ezingo dena izan 15 egun baliodun baino handiagoa, esleipenduna Administrazio honetara etorri beharko da kontratua dokumentu administratiboan formalizatzera.

22. BALDINTZA.- KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA.

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo esleipen prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA.

23. BALDINTZA.- KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA.

Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, betiere, baldintza agiri honen baldintzen pean -eta hala badagokio, espedienteari batutako zehaztasun teknikoen pean- eta Administrazioaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean, zeinak ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabiliko dituen.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz

Administrazioak uste badu kolokan dagoela kontratuak behar bezala aurrera egitea, kontratua behar bezala burutzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko agindu ahal izango du.

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratu hau exekutatzeko gizarte, lan, etika, ingurumen zein bestelako exekuzio-baldintza berezi hauek eskatuko dira: baldintza agiri honetako 27. baldintzan ezarritakoak.

Baldintza horiek funtsezko izaera dute kontratuaren betebeharretarako, eta beraz, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoaren babesean, baldintza horiek ez betetzea kontratua suntsitzeko arrazoia izan daiteke lege horretako 211.1.f) artikuluan aipatutako ondorioetarako.

24.- BALDINTZA. KONTRATUAREN ARDURADUNA.

2017ko SPKLren 62. artikuluaren arabera, Alkateak izendatuko du Udalaren aldetik kontratuaren ardura izango duen pertsona.

Arduradunari dagokio kontratuaren egikaritzea gainbegiratzea eta kontratatutako zerbitzua zuzen egingo dela bermatzeko beharrezko erabakiak hartzea eta aginduak ematea, 2017ko SPKLren 62. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratuaren arduraduna da enpresa esleipendunaren eta kontratazio organoaren arteko solaskidea.

25. BALDINTZA.- KONTRATISTAREN LAN ARLOKO BETEBEHARRAK.

Kontratu honen xede den zerbitzuan kontratatuko dituen langileei dagokienez, kontratista behartua dago lanaren, gizarte-segurantzaren zein laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzera, bai eta aplikatzekoa den Gipuzkoako Eskuhartze hitzarmen kolektiboaren araberako soldata-baldintzak ere. Beteko ez balitu, administrazioak ez luke inolako erantzukizunik horri buruz.

26. BALDINTZA.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK KONTRATUA EGIKARITZERAKOAN.

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua.
- Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta hori garatzen duten arauak, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Eskoriatzako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (2018-2022), 2018ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onartua.

2/2016 Legeak, bere 7.8 artikuluan, eskumena aitortzen die udalei zehar-kudeaketa moduan ematen diren zerbitzuen kontratuetan hizkuntza klausulak sartzeko helburu honekin: udalari exijitu ahal zaizkion hizkuntza baldintza beretan ematea zerbitzua.

Lege horrek ezarritakoarekin bat etorriz, 179/2019 Dekretuak, bere 36.3 artikuluan, xedatzen du Euskadiko toki-entitateek hizkuntza bien ofizialtasunaren araubidea betearaziko dutela kontratu publikoetan, eta, kontratuaren helburua zein den, halako hizkuntza-betekizunak

ezarriko dituztela administrazio-baldintza partikularren agirietan.

36.8 atalean, gainera, herritarrekin harreman zuzena eskatzen duten kontratuetan, hauxe bermatu beharko dela zehazten du:

a) Enpresa esleipendunak hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri beharko ditu lanpostuetan. Alderdi hori kontratuko administrazio-baldintza partikularren agirietan egongo da jasota.
b) Zerbitzua ematen duenean, esleipenduna saiatuko da herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izaten. Horretarako, enpresa esleipenduneko langileak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du. Zerbitzuaren erabiltzaileak zer hizkuntza aukeratu duen, hizkuntza horretan idatziko ditu enpresa esleipendunak zerbitzua emateko behar diren ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta beste idazki batzuk.

Kontratu honen xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dute; izan ere zerbitzuaren hartzaileak 13-17 urte bitarteko herriko nerabeak dira eta zerbitzuaren helburu nagusienen artean daude euskal kultura eta euskararen aldeko jarrera sustatzea eta euskararen erabilera bultzatzea.

2.- Horrenbestez, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua ezinbestean euskaraz gauzatzea eskatzen dutenez, **zerbitzu hizkuntza** euskara izango da. Edonola ere:

a) Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira.

b) Udalarekin eta herritarrekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez (zehaztasunak, plegu honetako 28. baldintzan eta plegu teknikoetako 6 eta 7. klausuletan).

c) Zerbitzua ematerakoan, nerabeekiko harreman oro euskaraz izango da. Guraso eta gainerako herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da, eta hortik aurrera eurek aukeratutako hizkuntzan jarraituko da. Idatzizko harremanetan ere, eurek aukeratutako hizkuntzaren arabera jokatuko da, euskaraz edo ele bietan.

3.- Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak **Udalarekin** dituen ahozko zein idatzizko **harremanak** udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

4.- Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren **jarraipena:** Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen udal arloak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan.

5.- Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen **ondorio berdinak** izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.

27.- BALDINTZA. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK.

Kontratu hau egikaritzeko ondorengo egikaritze baldintza bereziak eskatuko dira:

Kontratista behartuta dago lan arloko, gizarte-segurantza arloko, lan-segurtasun eta osasun

arloko eta ingurumena babesteko indarrean egon eta aplikagarri diren lege, arau eta hitzarmenak betetzera eta baita baldintza agiri honetan ezarritakoa k ere.

Enpresa kontratistak kontratua egikarituko duen plantillari aplikatuko dizkio bere enpresa jarduera zedarrituta dagoen sektoreko alor baxuenari dagokion sektoreko azken hitzarmen kolektiboak zehaztutako lan baldintzak, bertan xedatutakoa hobetzen duten eta indarrean dauden beste hitzarmen edo enpresa itun batzuen kaltetan gabe.

Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa kontuan hartuta, eta ezingo ditu lan baldintza horiek okerragotu; nahiz eta aurrerago hitzarmen horren indarraldia amaitu daitekeen, lan hitzarmenen indarraldiaren amaierari buruz legeetan edo hitzarmenetan aurreikusitakoa betez. Betebehar hori bete dela ulertuko da hitzartuta zeuden lan baldintzak hitzarmenak indarra galdu aurreko –halakorik gertatuz gero– unera arte mantentzen badira. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatu badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira izan inola ere aplikatu beharreko alorreko hitzarmen kolektiboan xedatutakoak baino apalagoak. Enpresa kontratistak nahitaez eman beharko dio kontratazio organoari alderdi hori frogatzeko eskatutako edozein informazio edo dokumentazio.

Esleipendunak kontratuaren helburua den jarduera egiten duten langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien adierazi beharko du. Horretarako, kontratua esleitu ondoren kontratu horretara atxikitako langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatuko zaion behar beste informazio ematera behartuta dago.

Enpresa esleipendunaren arabera kontratuaren xedea den jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa zaien hitzarmen kolektiboaren inguruko informazioa jasoko da esleipen ebazpenean, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratuari atxikitako langileen lan baldintzen edozein aldaketa aldez aurretik jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari, baldin eta esleipenaren unean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan xedatutakoei eragiten badie. Komunikazio horretan negoziazioari buruzko justifikazio dokumentazioa agertu beharko da, bai eta lan baldintza berrien edukia eta aldaketa horrek kontratuaren kostuen egituran izango duen berehalako eta etorkizuneko eragina ere.

Azpikontrataziorik egiten bada, baldintza honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan izena eta alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

Baldin eta, enpresa kontratistak baldintza honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

28.- BALDINTZA. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1- Kontratistak eskubidea izango du agintaritza aginpidedunak onartutako tarifak erabiltzaileei kobratzeko, eta tarifa horiek berraztertzeko proposamenak aurkezteko.

2.- Jarduera dela-eta beste herri administrazio batzuk ematen dituzten diru-laguntzak jasotzeko eskubidea ere izango du.

3.- Baldintza agiri honetan jasotakoaz eta ordezko arauak ezartzetik sor daitezkeenaz gain, kontratistaren betebehar bereziak izango dira honako hauek:

- Kontratuaren helburua eta kontratuan ezarritako mugak errespetatzea, uneoro bermatuz kontratua behar bezala beteko dela.
- Kontratazio Organoak emandako jarraibideak betetzea, eta udal agintaritzari eta haren agente edo funtzionario aginpidedunei zerbitzua nola ustiatzen den ikuskatzen uztea.
- Baldintza agiri honetan eta baldintza teknikoetan ezarritako baldintzetan eta epeetan zerbitzua martxan jartzeko behar diren elementu guztiak bere kontura erostea.
- Langileak kontratatzea.
- Baldintza teknikoen agirian aurreikusitako eran burutzea kontratatutako lanak.
- Egoera onean mantentzea eta zaintzea altzariak eta beste material batzuk, hala nola zerbitzura esleitutako eraikinak.
- Udalak agindutako zerbitzu aldaketak onartzea indarrean dagoen legeriak adierazitako baldintzetan.
- Lizitazioak eta kontratuak sortutako estatuko zein tokiko zerga guztiak ordaintzea (tasa, kontribuzio eta zergak).
- Hiruhilero eta eskatzen zaion guztietan, jasotako diruari, erabiltzaile kopuruari, gorabeherei eta abarrei buruzko informazioa ematea.
- Egindako jarduerei buruzko txostena egitea, baldintza teknikoetan jaso bezala.
- Baldintza teknikoetako baldintzak betetzea.

4.- Giza baliabideak. Zerbitzuan jardungo duten langileek ondoko prestakuntza baldintza hauek bete beharko dituzte:

Hezitzailea bada:

2.-Titulazioari dagokionez, gutxienez, LHI edo batxilergoa izatea

3.- Aisialdirako begirale titulua izatea

4.- Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko ahozko euskara maila egiaztatzea (agiririk izan ezean, Udalak berariaz prestatuko duen euskara proba egin beharko da, esleipen honetatik kanpo inolako baliorik izango ez duena).

Koordinatzailea bada:

1.- Antzeko lanetan esperientzia izatea.

2.-Titulazioari dagokionez, gizarte zientziekin zerikusia duen gradu bat izatea edo baliokidea izan daitekeen titulazioa izatea (magisteritza, pedagogia, gizarte hezkuntza, psikologia edo antzekoa) edo lanbide heziketako goi mailako baliokidea den titulazioa izatea.

3.- Begirale titulua izatea.

4.- Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasunaren pareko euskara maila egiaztatzea (agiririk izan ezean, Udalak berariaz prestatuko duen euskara proba egin beharko da, esleipen honetatik kanpo inolako baliorik izango ez duena).

5.-Udalarekin harremanetarako arduraduna

Enpresa esleipendunak gutxienez arduradun bat izendatuko du programako Eskoriatzako Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko. Enpresak izendatutako

arduradunak zerbitzuko langileak izan beharko dira, eta gaituta egon beharko dira gai teknikoei zein administratiboei konponbidea emateko. Enpresak aukeratutako komunikazio sistema bidez uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko dira arduradunak.

6.-.- Kontratatutako langileen agirien aurkezpena

Kontratua gauzatzen hasi aurretik, zerbitzuan lanean ariko diren langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu enpresa esleipendunak:
Gizarte Segurantzan alta emanda egotearen egiaztagiria.
Kontratuaren kopia.
Eskatutako prestakuntza dutela egiaztatzeko dokumentuak (titulazioa, esperientzia, hizkuntz gaitasuna).

7.- Laneko arriskuen prebentzioa.

Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua betez, kontratistak, kontratua formalizatzen denetik 15 egun naturaleko epean, prebentzioarekin lotutako ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

1.- Prebentzioaren antolaketa-mota.
2.- Prebentzio arloko solaskidea.
3.- Kontratuaren helburu diren lanetan garatuko diren jardueren arriskuen ebaluazioa eta hartu beharreko prebentzio neurriak.
4.- Eskoriatzako Udalarentzat lan egin behar duten langileen zerrenda izena, bi abizen eta NAN edo AIZ zenbakiarekin.
5.- Langileen aitorpena, ondorengoei buruzko informazioa jaso izanarena:
    Lantokiaren arriskuak.
    Lantokiaren larrialdietarako plana.
Kontratatutako enpresentzako segurtasun eta osasun arau orokorrak.
6.- Beraien jardueraren arrisku zehatzei buruz langileei emandako prestakuntza eta informazioaren egiaztapena.
7.- Osasunaren zaintza derrigorrezkoa duten lanpostuen zerrenda eta lanpostu horietako langileen gaitasun ziurtagiria.
8.- Langileei babes ekipoak eman izanaren justifikantea.
9.- Erabiliko diren ekipoen edo makinen zerrenda eta horiekiko adostasun adierazpena.
10.- Makinak edo ekipoak erabiltzeko langileei emandako baimena.
11.- Prebentzio errekurtsoaren izena (lan honetan prebentzioko ardura duen pertsona), beharrezkoa balitz.
12.- Gizarte Segurantzari aurreko hilabetean ordaindu izanaren TC1 eta TC2 boletinak.
13.- Kontratazio berrietan, Gizarte Segurantzako alta partearen (TA-2) fotokopia.
14.- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
15.- Betebehar fiskalak egunean dituela jasotzen duen Ogasuneko ziurtagiria.
16.- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren eta azken ordainagiriaren kopia.
17.- Erantzukizun asegurua hirugarrenei eragindako kalteengatik.
Kontratistak aseguru kontratua izan beharko du kontratua exekutatzeko denbora osorako (luzapenak barne) eta dagokion berme eperako (luzapenak barne), eta aseguru horrek kontratu hau betetzeko jardunak eragin dezakeen arriskuak estali beharko ditu, gutxienez, 600.000 eurotan.
Edozein kasutan ere, frankiziari dagokion zenbatekoaren kalte-galerak esleipendunak berak jasango ditu kalte-galerok aseguru-poliza guztietan ezar daitezkeen mugak gainditzen dituzten guztietan zein aseguru-poliza horiek estaltzen ez dituzten ondasunetan eta arriskuetan.

8.- Kontratistaren betebeharrak lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun

arloetan.

1.- Enpresa kontratistak lan, gizarte segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapen guztiak bete beharko ditu.

2.- Enpresa kontratistak, kontratuaren exekuzioak dirauen bitartean, aplikatzekoa zaion lan hitzarmenean jasotako soldata ordaindu beharko dio langile bakoitzari, dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata inolaz ere ezingo da izan hitzarmenean jasotakoarena baino txikiagoa.

3.- Baldintza honetan jasotako betebeharrak betetzetik sortutako gastuak esleipendunaren kontura izango dira, eta kontratua exekutatzeko eskainitako prezioan sartuta egongo dira.

4.- Aurreko paragrafoetan ezarritako betebeharrak egikaritze baldintza berezi bezala ezartzen dira eta kontratua egikaritzerakoan egiaztatu beharko dira.

9.- Datu pertsonalen babesa.

1.- Esleipendunak eta datu pertsonalak tratatzeko edozein fasetan parte hartzen duen edonork nahitaez gorde beharko du datu horien inguruko sekretu profesionala, eta datuok ere gorde beharko ditu. Betebehar horiek jarraitu egingo dute entitate kontratatzailearekin duen harremana amaitu ondoren ere.

2.- Enpresa esleipendunak datu pertsonalak erabiltzea beharrezkoa izan daiteke kontratua betetzeko; datu horiek erabiliko dira datu pertsonalak babesteko legediari jarraikiz, baita entitate kontratatzaileak emandako jarraibideei jarraikiz ere.

3.- Enpresa esleipendunak ezingo dizkio datu horiek hirugarrenei eman, eta ezingo ditu erabili kontratua egikaritzeko behar diren helburuak ez diren beste batzuetarako.

4.- Enpresa esleipendunak, tratamenduaren arduradun denez, nahitaez hartu beharko ditu neurri teknikoak eta antolakuntzakoak, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta horiek aldatzea, galtzea, edo baimendu gabeko tratamendua edo sarbidea saihesteko, dela gizakiaren ekintzaren batengatik, dela inguru fisiko edo naturalarengatik.

5.- Esleipendunak onartuko du entitate kontratatzaileak egitea egoki iritzitako kontrolak kontratua indarrean dagoen aldian, egiaztatzeko segurtasun neurriak betetzen direla eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartu ahal izateko.

6.- Esleipendunak, kontratuaren prestazioa amaitutakoan, datu pertsonalak suntsitu beharko ditu, erakunde kontratatzaileari itzuli beharko dizkio, edo tratamenduaz arduratzeko administrazioak izendatutako beste pertsona bati itzuli beharko dizkio.

7.- Baldin eta, enpresa kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik entitate kontratatzailea zigortzen badute ez betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

29. BALDINTZA.- KONTRATISTARI ORDAINTZEA.

Hitzartutako prezioen eta benetan egindako lanen arabera kobratzeko eskubidea du kontratistak, betiere, lan horiek egindako kontratuaren, horri egindako eta onartutako aldaketen eta Udalak emandako aginduen arabera egin baldin badira.

Zerbitzua hilero ordainduko da, dagozkion fakturak aurkeztu eta zuzen daudela ikusi ondoren, eta betiere, dagokion teknikariak lanak zuzen egin direla onetsi ondoren.

Ordainketa 2017ko SPKLren 198. artikuluan ezarritako epeen barruan egingo da.

Ordainketa egiterakoan lau hilabete baino gehiagoko berandutzea egongo balitz, kontratistak, hala nahi izanez gero, kontratua bete gabe utz dezake. Horrela eginez gero, horren berri eman beharko dio Administrazioari hilabete aurretik, bete gabe uzte horretatik sor daitezkeen eskubideak aitortzeko 2017ko SPKLren ezarrita bezala.

Administrazioa sei hilabete baino gehiago berandutuko balitz ordainketan, kontratistak eskubidea izango du kontratua suntsiarazteko eta horren ondorioz izan ditzakeen kalteen ordaina jasotzeko.

Kontratista abenduaren 1eko 632/2014 Foru Aginduko (2014/12/09ko 234. GAO) 2. artikuluan aurreikusitako pertsona juridikoren bat baldin bada, dagokion faktura modu elektronikoan aurkeztu beharko du. Faktura elektronikoa erabiltzera derrigortuta ez dagoenak ere borondatez erabili ahal izango du.

Faktura elektronikoa: Fakturak formatu elektronikoan bidali beharko dira Gipuzkoako fakturen sarrera puntu orokorraren (FSPOe) bidez https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua
Unitate organikoen DIR3 kodigoak:

Eskoriatzako Udala
Organo kudeatzailea: L01200343
Unitate izapidegilea: L01200343
Kontabilitate bulegoa: L01200343

30.BALDINTZA.- KONTRATUAREN ALDAKETAK.

Kontratua bakarrik interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da 2017ko SPKLren bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. ataleko 4. azpiatalean jasotako kasuetan eta moduan, eta 2017ko SPKLren 191. artikuluak araututako prozeduraren arabera, 2017ko SPKLren 207. artikuluan jasotako berezitasunekin.

Kontratazio organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat 2017ko SPKLren 206. artikuluak ezarrita bezala. SPKLren 153. artikuluan xedatutakoari jarraituz formalizatu beharko dira, eta lege horretako 207. eta 63. artikuluetan ezarritakoaren arabera argitaratu.

31.BALDINTZA.- ESKORIATZAKO UDALAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

1.- Kontratistaren kudeaketa fiskalizatzea. Horretarako, Eskoriatzako Udalak dagokion zerbitzua behar diren aginduak emango dizkio esleipendunari ohi denez eta behar bezala eman dezan zerbitzua kontratuan datozen klausulen arabera, betiere, batzordeburuak edo berak eskuordetutako pertsonak zerbitzua zuzentzeko eta ikuskatzeko izango duten ahalmenaren kaltetan gabe.

2.- Erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifak onartu eta kontrolatzea, eta horiek berraztertzea.

3.- Baldintza agiri honetan datozen gainerako betebeharrak, eta aplikatu beharreko arauditik sortutakoak.

32.BALDINTZA.-KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA EGIKARITZERAKOAN BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK.

Kontratistak izango du kontratua egikaritzeko egin beharreko ekintzen ondorioz eragiten diren kalte galeren gaineko erantzukizuna, SPKLren 196. artikuluan xedatutakoaren arabera.

33. BALDINTZA.- KONTRATUAREN ALDAKETAK.

Herri onurako arrazoiak direla-eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako egoeraren bat gertatutakoan eta 203., 206. eta 207. artikuluetan jasotakoari jarraikiz, eta betiere, horrekin ez badira aldatzen lehiaketaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak.

Aipatutako balizko aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

34 .BALDINTZA.- DATU PERTSONALEN BABESA.

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorretik sortutako betebeharrak bete beharko ditu kontratistak, eta baita SPKLren hogeita bosgarren xedapen gehigarrian adierazitakoak ere.

35. BALDINTZA.- BERME EPEA.

Kontratu-mota honen izaera dela-eta, ez da aurreikusten berme-eperik jartzerik.

36.BALDINTZA.- ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK ONDORENGOAK EZ BETETZEAGATIK.

A. Kontratua exekutatzeko epeak ez betetzeagatik.
Kontratistak, bere erruagatik, kontratua egikaritzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan egikaritu gabe baditu epe horietan egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo lanak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren (BEZ gabe) 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta egikaritzarekin aurrera egitea erabakitzeko.

B. Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea.
Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen egikaritze partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. Egoki ez betetzea.
Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZ gabe), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50a.

D. Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea.
Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZ gabe), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50a.

E. Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea.
SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZ gabe), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratuaren prezioaren % 50a.

37. BALDINTZA. ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.

Esleipendunak egindako hutsegiteak honela zigortuko dira:
Hutsegite arinak 60tik 150 euro arteko isunaz zigortuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urte batean 15 hutsegite eginez gero.

Hutsegite larriak 150etik 300 euro arteko isunaz zigortuko dira. Kontratua hautsiko da kontratuaren urte batean 10 hutsegite eginez gero.

Hutsegite oso larriak 301etik 450 euro arteko isunaz zigortuko dira eta behin betiko bermea galtzea ekarriko du. Gainera, hutsegite oso larritzat kalifikatutako b) eta c) hutsegiteak izanez gero, kontzesionarioak zenbateko bereko beste berme bat jarri beharko du edo kontratua hautsiko da.

Zigorrez gain, kontzesionarioak kalte-ordain bat ordaindu beharko dio Udalari. Kalte-ordain horren zenbatekoa egin ez den zerbitzuari buruz, aplikatu ez diren bitartekoei buruz eta abarrei buruz egindako balorazioarena izango da.

Ezarritako isunen zenbatekoa hileroko zerbitzua ordaintzerakoan murriztuko da ziurtagirietatik edo jarritako bermetik.

HUTSEGITE ARINAK: Hutsegite arinak hauek izango dira:

- Kontratistak bere betebeharrak betetzerakoan izandako atzerapenak.
- Udalak emandako jarraibideetan desobedientzia arinak.
- Gabezia arinak zerbitzua ematean, lekua behar bezala izatean, lokalak eta tresnak garbi izatean eta eraikinak eta altzariak erabiltzean.
- Erabiltzaileei zor zaien errespeturik eta arretarik ez izatea.
- Eskatutako datuak eta azterketak entregatzerakoan, enpresari egotzi dakion atzerapena edo akatsa izatea.
- Hainbat arrazoirengatik zerbitzuan egon daitezkeen aldaketak ez jakinaraztea.
- Udalak emandako aginduak betetzean atzeratzea, betiere atzeratze hori 24 ordutik gorakoa ez bada, eta hala bada, hutsegite larritzat hartuko litzateke hutsegitea.
- Erabiltzaileekin gizalegez ez jokatzea.

HUTSEGITE LARRIAK: Hutsegite larriak hauek izango dira:

- Hutsegite arinak behin eta berriro egitea.
- Bere langileen portaera erabiltzaileekiko harremanei buruz zein udal araudia zorrotz betetzeari buruz, eta bereziki, kontratu hau arautzen duen araudiari eta abarrei buruz, kontrolatzerakoan arduragabekeriaz jokatzea.
- Kontratistaren jardunak instalazioen balioaren galera dakartzatenean.
- Emandako zerbitzu publikoa behar bezala ez erabiltzea.
- Kontratuaren helburu ez den jarduera bat egitea zerbitzuan.
- Ezarritako ordutegia ez betetzea.
- Kontratistaren oinarrizko betebeharren arau hauste larria.
- Kontratuaren helburu diren lanak geldiarazi edo etetea hiru egunez, ezinbesteko arrazoirik ez badago.
- Baimendutakoak baino prezio handiagoak kobratzea.
- Kontratistak baldintza agirietako edo bere eskaintzako baldintza eta betebeharrak ez betetzea.

HUTSEGITE OSO LARRIAK: Hutsegite oso larriak honako hauek izango dira:

- Kontratatutako zerbitzuak ematen ez hastea baldintza agiri honetan ezarritako epe barruan, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.
- Kontratatutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea hiru egun baino gehiagoz, ezinbesteko kausen ondorioz ez bada.
- Pertsonen segurtasunari eragiteko moduko baldintzetan ematea zerbitzua, arrisku larria eta zuzenekoa eragiten dutenean.
- Ikuskatze zerbitzuen jarduerari uko egitea edo oztopoak jartzea, ezarrita dituzten legez edo arauzko egitekoak burutzea galarazteko.
- Zerbitzu publikoa titulaziorik gabe edo gaitasun profesionalik gabe ematea.
- Kontratuaren epea amaitu gabe egonda zerbitzua bertan bera utzi edo etetea Administrazioaren baimenik gabe.
- Kontratatutako zerbitzu publikokoak ez diren helburu eta xedeetarako jartzea zerbitzuari atxikitako materialak, edozein modalitate edo titulupean, aurretik Udalaren baimenik izan gabe.
- Hutsegite larriak behin eta berriro egitea.

38. BALDINTZA.- KONTRATUA SUNTSITZEKO ARRAZOIAK.

Zerbitzu kontratua suntsitzeko arrazoiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

39. BALDINTZA.- KONTRATUAREN LAGAPENA.

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio kontratistak, baldin eta:
a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari adjudikatzeko,
b) merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar lagapenak,
c) kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar lagapenak, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, eta SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator lagapena.

40. BALDINTZA. -AZPIKONTRATAZIOA.

Enpresa esleipendunak beste batzuekin hitzartu ahal izango du kontratuaren zati bat egitea, zehazki, ohiko zerbitzuan sartuta ez dauden eta kostu gehigarria duten jarduerak egitea.
Azpikontratazioak ondorengo baldintzak betetzearen menpe egongo dira:

- Administrazioari beti jakinarazi beharko zaio egin beharreko azpikontratu hori, eta bertan zehaztu beharko da kontratuaren zein zati egingo dituen azpikontratistak.
- Hirugarrenekin azpikontratatutako prestazio partzialek ez dezatela gainditu esleipen prezioaren % 50a.
- Azpikontratatutako enpresak esleipendunaren aurrean behartuta egongo dira bakarrik, eta beraz, Administrazioaren aurrean esleipendunak izango du administrazio baldintza partikularren eta kontratuan zehaztutakoaren arabera kontratua betetzeko erantzukizun osoa

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

41. BALDINTZA.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA.

Baldintza-agiri honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du eta agiri honek eta honekin batera doan gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute kontratua. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak

Administrazio baldintza partikularren agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

42. BALDINTZA.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK.

Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakon sor daitezkeen zalantzak erabakitzea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratua suntsitzeko erabakia hartzea eta horren eragina zehaztea, betiere, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintzak eta ondorioak betez.

43. BALDINTZA.- ERREKURTSOAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kontratua betetzerakoan sor daitezkeen arazoak kontratazio organoak erabakiko ditu. Arazoak konpontzeko hartutako erabakiek administrazio bidea agortuko dute eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira zuzenean, kasuan kasu, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututako kontratazioaren alorreko errekurtso berezia edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako edozein errekurtso jartzearen kaltetan gabe.

I. ERANSKINA. KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

SARTU EUROPAKO KONTRATAZIO DOKUMENTU BAKARRA (DEUC), ETA, HORI BETETZEKO, JARRAIBIDE HAUEI JARRAITU

Erantzunkizunpeko adierazpenari buruzko eranskina bete ahal izateko Europako Kontratazio Dokumentu Bakarraren eredu normalizatuaren bidez, hurrengo urrats hauei jarraitu behar dira:

1. Deskargatu ekipora DEUC.xml fitxategia, zeina Sektore Publikoko Kontratazioaren Plataforman eskura daitekeen erlaitz honetan: *anexos de la presente licitación*.

2. Ireki esteka hau: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd

3. Hautatu *español* hizkuntza.

4. Hautatu *soy un operador económico* aukera.

5. Hautatu *importar un DEUC* aukera.

6. Kargatu ekipoan lehen deskargatutako DEUC.xml fitxategia (1. urratsa).

7. Hautatu herrialdea eta sakatu *siguiente*.

8. Bete DEUCeko dagozkion atalak.

9. Inprimatu eta sinatu dokumentua.

10. Dokumentu hori, behar bezala bete eta sinatuta, lizitazioaren gainerako dokumentuekin batera aurkeztu beharko da, deialdia arautzen duten baldintza agirietan ezarritakoaren arabera eta bertan ezarritako epearen barruan.

11. Kontratuan hainbat sorta badaude, lizitatzeko hautatutako sorta bakoitzeko adierazpen bat bete beharko da.

12. Lizitaziora ABEE batean elkartuta jotzen bada, ABEE hori osatzen duten enpresa bakoitzak bete beharko du dokumentua.

13. Lizitatzaileak kontratua gauzatzeko behar den kaudimena baduela egiaztatzen badu beste erakunde batzuen kaudimenean edo bitartekoetan oinarrituta, horiekiko duen izaera juridikoa alde batera utzita, enpresa lehiatzaileak dokumentu bat bete beharko du eta atxikitzen diren bitartekoen enpresak beste bat.

